

## **LAN HITZARMEN DUINAREN ALDE**

### **HAURRESKOLAK BORROKANI!**

Haurreskolak Partzuergoko **1500 langileei** eragiten dion Lan Hitzarmenak **2009ko abenduaren 31n** amaitu zuen bere indarraldia. Harrezkero, benetako negoziazioa martxan jartzen saiatu izan garen bakoitzean, murrizketak nola aplikatu baino ez dute negoziatu nahi izan, bai Eusko Jaurlaritzatik atera berria den Hezkuntza Sailburua Celaá anderearen garaian bai sartu berria den Uriarterekin ere. Egungo egoera hau da, azken Lan erreformak ahalbideratuta **2013ko uztailaren 7an** gure lan hitzarmena, beste konbenio asko bezala, bertan behera geratzeko arriskuan dago. Azkeneko Mahai negoziatzailearen bilera otsailaren 20an izan genuen eta sindikatu bakoitzak bere aldarrikapenak aurkeztu zituen, Eusko Jaurlaritzaren eta Haurreskolak Partzuergoaren aldetik denbora eskatu zuten egoera aztertzeko eta pasa den martxoaren 13rako geratu ginen. Aurreko martxoaren 12an bilera hau **atzeratzen** zela jakinarazi ziguten inongo datarik eman gabe.

**2009tik** Administraziopeko gainontzeko langileek bezala guk ere **murrizketak** pairatu ditugu.

Gauzak horrela, **LAB, STEE-EILAS eta ELA** sindikatuok Haurreskolak Partzuergoaren Lan hitzarmenaren negoziazioa bi fase planteatzen ditugu:

Lehenengoan, negoziazioan aurrera joan ahal izateko, Haurreskolak Partzuergoak **konpromiso** batzuk bete beharko ditu. Negoziatorako eskubidea berreskuratzeko enpresaren aldetik alde bakarreko erabakiak baztertu. Ildo beretik, azken lan erreformak ematen dizkion aukerak ekidin eta enpleguaren defentsan, egungo Lan hitzarmena indarrean mantendu hurrengo sinatu arte.

Bigarrena, gaur egun dugun Lan hitzarmenetik abiatuta, lan baldintzetan aurrerapausoak ematea.

Aipatutako egoeraz gain, joan zen astean 2013ko aurrekontuetan Haurreskolak Partzuergoak % **11ko murrizketa** jasoko duela jakin dugu. Nola kudeatuko dute murrizketa hau zerbitzuan eraginik izan gabe ?

Ez dugu ahaztu behar **PNV eta UPyDren** laguntzarekin **PPren** Haurreskoletan gaztelaniaren erabilera bermatzeko legez besteko proposamena aurrera atera du.

Hau gutxi balitz aurreko astean berriro ere PNVk PPrek udaletik beste proposamen bat aurrera atera du, hurrengo ikasturterako **Gasteizko hiru Haurreskola ixtekoa**. Aldebakarreko erabaki hau oso larria iruditzen zaigu.

Honek guztiak Haurreskolak Partzuergoko hezkuntza kalitatea kaskartu eta haurren ongizatea, eta berez, dituzten **hezkuntza eta hizkuntza eskubideak** kolokan jartzen ditu.

Egoera honi irtenbidea emateko **negoiatzeko borondate osoa daukagu**, urteetan lortutako **eskubideak errespetatuak izatea** eskatzen dugu eta horretarako, **borondate eta ausardia politikoa** baino ez da behar. Horregatik, ez dugu inolako atzera pausurik onartuko.

Negoiazio honek izango duen bilakaeraren berri emango dizuegu, baina argi dago, egoera ikusita kalean mobilizazioekin hasteko arrazoiak eman dizkigutela eta momentu oro hartu beharreko pausuak zeintzuk izango ziren baloratuko genuke.

Horregatik, langileak mobilizatzeraz deitzen zaituztegu. Eusko Jaurlaritzak eta Haurreskolak Partzuergoko zuzendaritzak geldi eta burumakur nahi gaituen une honetan, **gaur**, martxoak 20, EAEko **hiriburuetan** kontzentrazioak burutuko ditugu arratsaldeko **18:00etan**. Oraingo honetan **performance** bat egingo dugu eta **denon artean lortuko dugulako** bertan parte hartzeraz animatzen zaituztegu.

**Mobilizazioak:** Bilbon, Plaza Zirkularrean

Donostian, Alderdi Ederren

Gasteiz, Ama Zuriaren Enparantzan



**Guztion artean lortuko dugu!**